

PRESTAKUNTZA-GIDOIA

HAUR MISIOLARIEN EGUNA * 2024ko urtarrilaren 14a



NAIZENA PARTEKATZEN DUT

GIROTZEA

Txikitandik, gauza asko jasotzen ditugu, gure gurasoengandik batez ere: janaria, liburuak, arropa, jostailuak... Baina gauza asko jasotzen ditugu Jainkoarengandik ere: maitasuna, itxaropena, fedea, dohainak... Hori guztia doan jaso dugu. Eta Ebanjelioak garbi esaten digu: «Doan jaso duzuen, doan eman». Jesusek, daukaguna ez ezik, garena ere partekatzen erakutsi digu, berak bere jarraitzaileekin egin zuen bezala, parabolaren bidez, otoitz eginez eta elkarrekin barre eginez.

HELBURUAK

- Jainkoak eman dizkigun dohainez konturatzea, Jainkoari dohain horiengatik eskerrak ematea, eta dohain horiek berak irakatsitakoari jarraikiz erabiltzea.
- Gure kristau bizitza besteekin partekatzea zein garrantzitsua den ikustea, gure senideen fedea areagotzen laguntzeko.
- Komunitate bateko kideak garelako ulertzea, eta, beraz, partekatzeari esker bakarrik eta bakanduta egongo ez garelako ulertzea.



SAIOA NOLA GARATU

Proposatutako hiru helburuak lortzeko, hiru jarduera egingo ditugu.

1. jarduera: Nor naiz ni?

Nor garen eta zein dohain daukagun azaldu baino lehen, gure bihotzera begiratu behar dugu, nolakoak garen jakiteko. Horretarako, kartulina zuri bat eta pintura gorria beharko ditugu haur bakoitzarentzat. Haur bakoitzak bihotz handi bat marraztu eta moztuko du. Gero, bere ustez daukan bertute edo dohain bat idatziko du bihotzaren barruan. Ondoren, bihotza bere

bizkarrean itsatsiko du, hari batekin edo zelo pixka batekin. Zutik jarri, eta aretoan barrena oinez ibiliko dira neska-mutilak. Kide batekin topo egitean, kide horren bertute edo dohain bat idatzi beharko dute kide horrek bizkarrean daraman bihotzean. Tarte baten ondoren, denek idatzitakoan, zirkuluan eseriko dira denak. Bakoitzak bere bihotza hartuko du, eta isilean irakurriko. Haiek uste baino bertute gehiago dauzkatela ikusiko dute.

2. jarduera: Zer egin behar dut nire dohain edo talentuekin?

Gure bihotza eta gure dohainak ikusi ondoren, azter dezagun zer egin dezakegun horiekin. Bi aukera dauzkagu: Valivan abeslariak kantaturiko talentuen parabolaren abestia entzun –QR kodea eskaneatuz aurkituko duzue– edota Ebanjelioan Mt 25,14-30 irakurri. (Txikienen kasuan, Valivanen bideoa ikustea gomendatzen dugu).

Parabola horren bidez, Jainkoak gu guztioi talentuak, gaitasunak eta aukerak eman dizkigula ulertzen dute haurrek, eta guk gauza horiek guztiak gure bizitza hobetzeko eta gure senideei laguntzeko erabiltzea nahi duela Jainkoak.

3. jarduera: GOD TALENT

Jainkoak bere seme-alaba egin gaitu eta bere Elizako kide, eta hori da eman digun dohain nagusia. Ba al zenekiten neska-mutil askok oraindik ez dutela Jainkoa ezagutzen? Zer egin dezakegu munduari gure kristau fedea erakusteko?

Hirugarren jarduera honetan, *Got Talent* moduko ikuskizun bat egingo dugu, baina izena zertxobait aldatu eta GOD TALENT deituko da. Haurrek, hirunaka edo launaka jarrita, fedea eskolan, katekesian, familian, kanpamentuetan eta abar nola bizi duten erakutsi beharko diote «publikoari», abestien, mimikaren, dantzaren eta abarren bidez.

ONDORIOA

Misioa ez da gauzak ematea bakarrik: misioa nik bizi dudana eta ni naizena ematea da. Misioa munduko neska-mutil guztiekin bat egiten dudala sentitzea da, haiei guztiei Ebanjelioa, fedebizitza eta Jainkoaren seme-alaba izatearen poza erakusten ari baitira gure misiolariak. Misioa nire otoitzaren eta nire ahaleginaren bidez Jesus ezagutarazteko eta maitatzeko ardura neure gain hartzea da.

